

Gerra zeharo politikoa

Olartegiko defentsa-lerro errepublikanoa EAJren "Gatzaren Matxinada Batailoia" izenekoaren esku zegoen. Batailoi horrek, besteek bezala, bere borrokalariek estimutan zuten gertaera edo pertsonaia historiko batengandik jasotzen zuen bere izena. Gogoan izan behar da beste euskal batailoi batzuek honako izen hauek zituztela: "Sacco eta Vanzetti" anarkista (1927an AEBetan exekutatuak bi sindikalista etorkin italiarren omenez), "Rosa Luxemburgo" komunista (1919an exekutatuak izen bereko militante alemaniarraren omenez) edo "Madril" sozialista, gotorlekuak Keturako grafitiz apaintzen zituen [1] eta izena errepublikanoek espainiar hiriburuan erakutsitako erresistentziaren gorazarrez zuena. Bizkaian gertaera historiko bat izan zen 1631 eta 1634 bitartean, Gatzaren Matxinada, non nekazariak eta burgesak Erregeren autoritatearen aurka matxinatu ziren, hark gatzaren salmenta monopolizatze hartu zituen neurriengatik. Euskal gudariak, era horretan, espainiar monarkiaren aurkako euskal matxinada hari beren omenaldi berezia egiten zioten.



Hormigoizko habi gotortua Olartegin

Euskal batailoien izenen inspirazio ideologikoak eta haien osaera sozialak – batez ere hasieran, boluntarioez osatuak baitziren gehien-gehienak– gatazka haren izaera gordinki politikoa azpimarratu besterik ez dute egiten. Gerra tentsio politiko batzuen indarkeriazko gauzatzea zen, eta herritarrek, subjektu politiko diren aldetik, protagonismo nagusia izan zuten haren garapenean.

Menditik gabiltzala, ordea, gerraren aztarna arkeologikoak nahiko mutuak dira horri dagokionez. Lubakietako lur erauzian edo metrailadoreen habien hormigoian ez da politikarik nabari. Hala ere, inspirazio politikoren bat egon behar zuen 1936 eta 1937 artean milaka gaztek fronte hori eraiki eta euts ziezaioten.

Olartegiko defentsa-lerro horretan, adibidez, lubakien sigi-saga bihurria ikusten dugu, baita hormigoizko habia angeluzuzen gotortu bat ere. Kokapen horiek guztiak hegoalderantz begira dira, Arabako Lautadarantz, armada frankistaren esku baitzegoen hura. Dena dela, mendi horren iparraldeko hegalean oraindik ere ikusten dira harrizko txabolen hondakinak, hemen kantonatutako troparen babesleku izan zitezkeenak.

JOSU SANTAMARINA OTAOLA. ZIGOITIKO MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK

(2019-02-07) ERREPUBLIKAKO FRONTEA (1936-1937)